

GETXO. Seigarren urtez edegi dabe udaldirako, irailaren 15a arte

Zabalik dago udako turismo bulegoa, Tangora Etxen

Ereagako pasealekuan dagoan egoitzearen zerbitzua osotzeko egokitu dabe

Veronica Muñoz |

Tangora Etxeko turismo bulegoa zabaldu eben atzo, Algortako Etorbidean. Ereagako pasealekuan dagoan bulego nagusiaren zerbitzua osotzeko erabiliko dabe Irailaren 15era bitartean. Tangora Etxeko bulegoa seigarren aldiz ipini dabe martxan, hain zuzen, udan dagoan bisitarien kopuru handiari erantzuna emotekotan.

Bulego zabaldu barrian, besteak beste, Euskal Herri osoan dagozan leku turistikoan barri emongo deusiee gura daben turistei, Getxoren ganeko informazioari garrantzi berezia emoten. Beste aldetik, bai Tan-

gorako bulegoan zein Ereagako egoitza nagusian itsaso turismoa, abentura turismoa, eta kultureagaz zerikusirik daukien ekitaldietan parte hartzeko ize-na emon ahal izango da, eta udalerraren ganeko oroigarriak erosteko aukerea dago: kamisetak, posterrak, bideoak...

2.395 pertsonen bisitau eben Tangora Etxeko Turismo Bulegoak, joan dan urtean, informazioa eskatzeko. 1999 urteko udeagaz alderatuta, kopuruak %17 baino gehiago igon eban.

Getxoko turismo bulegoetan atenditzen dabezan turistak Europakoak dira, gehien bat; horreen artean, frantsesak lehenengo lekuan dagoz. Espainiako Estatutik etorritako turistetan, barriz, lehenengoak kataluniarrak dira (%31), eta horreen ostean Madrilgo herritarrek dagoz (%26).

Tangora Etxeko turismo bulegoa astelehenetik zapatara zabalduko dabe, goizeko 10:00etatik 14:00etara, eta arrastiko 17:00etatik 21:00etara, Algortako Etorbideko 98 zenbakian. Telefono zenbakia ondorengoa da: 94 460 69 99.

TURISTAK

Turista gehienak Europatik datoz, batez be Frantziatik, baina Kataluniatik be asko etorten dira

Korpusti jaia, Portu Zaharrean

Beste alde batek, bihar eguerdiko 12:00etan mezea egingo dabe Algortako Portu Zaharrean, Korpusti jaia ospatzeko. Ohizkoa dan lez, me-

zea kalean egingo dabe, Etxetxu plazan, eta Biotz Alai Abesbatzak abestuko dau. Mezea amaitu eta jarraian, herritarrek sardina erreak jango dabez, tradizioak eskatzen daue-nez.

Arrastiko 19:00etarako, barriz, Los Txikis talde ezagunak emongo dau kontzertua, Etxetxu plazan.



VERONICA MUÑOZ

Eskolako materiala, Jugoslaviako ikasleentzat

Algortako Juan Bautista Zabala eta Larrañazubi, eta Leioako Mercedarias eta Ingeles ikastetxeetako lehenengo hezkuntzako ikasleek Jugoslaviara

biartzeko eskolarako materiala batu dabe, egunkaz, Uribe Aldeko Gurutze Gorriaren Gaztedi Sailagaz batera egindako kanpaina baten bitartez. Kanpaina Alkartasunerako Zubiak izeneko egitasmoaren barruan eratu dabe, hondamenen bat jaso daben herrialdeei laguntzeko. Gurutze Gorriak ia urtero antolatzen dau alkartasun ekimen hori, preminen arabera.

MUNGIA. 'Mungikideak' asmoa aurkeztu dabe

'Mungiako Alkarteak', herriko taldeen ganeko liburua argitaratu barri dabe

V.M. |

Mungiako Alkarteak izenburupeko liburua aurkeztu eben atzo, Mugire Txokoan. Liburu horretan herriko alkarteen historia, ekitaldiak, eta egoerea jaso dabe, alkar-te guztien laguntzeagaz; guztira 47 alkarteren ganeko informazio zehatza jaso dabe. Liburua euskeraz eta gaztelaniaz idatzita dago, eta testuak batera gaur egungo argazkiak, eta antxinakoak be ipini dabez.

Horrezaz ganera, liburua- ren aurkezpena aprobetxau eben Mungikideak izeneko

egitasmoa ezagutzera emoteko. Izan be, asmo horren bitartez borondateko beharra egiteko prest dagozan pertsonen zerrenda osotu gura dabe herrian. Helburua bikotxa izango da. Batetik herri bizitza bera sendotzea; eta bestetik borondateko beharra, eta herriko alkar-teak hartu-emonak erreztea.

Herritarrek fitxa bat bete behar dabe, Mungiako Astiunen, eta bertan azalduko dabe zertan lagundu leikien; eta gero, preminen arabera, euren laguntza eskatuko deusiee.

LEIOA. Egitasmoa herri biko ikasleentzat da

Lamiakoko eskolea eta Santo Domingoko bat, alkarregaz drogen kontra

V.M. |

Lamiakoko Herri Eskolea Dominikar Errepublikako eskola batezaz senidetu zan atzo, Leioako auzoko eskolan izandako ekitaldi baten bitartez. *Osasunkume, bizitzaren abentura* izeneko programea martxan ipinteko egin dabe senidetze proposamena.

Gazteei osasunerako heziketea emoteko egitasmoa da *Osasunkume*, drogamenpekotasunen prebentziorako hain zuzen, eta dago zuzenduta 8 eta 11 urte arteko ikasleei. Leioa eta Dominikar Errepublikak alkarlanean

dabilz, joan dan urtetik, *Osa-sunkume, bizitzaren abentura* izeneko egitasmoan behar egiteko.

Proiektuaren arduradunek Lamiakoko eskola publikoaren instalazioak bisitau ebezan atzo, eguerdiko 12:15etik aurrera. Bertan izan ziran Karmelo Sainz de la Maza Leioako alkatea, Bixente Barreiro zinegotzia, Adelaida Otxoa Lamiakoko eskolearen zuzendaria, eta programa aurrera erroteko laguntza emon daben alkar-te eta erakundeetako ordezkariak, horreeen artean Perico Arrospide eta Miguel Angel Ortiz.

AGENDEA

GETXO

Dantza Eguna: Getxoko VIII. Dantza Eguna, egun osoan, Algortako Getxo antzokian. Sarrerea doan da.

BERANGO

Dantzaldia: Adagio baletaren ikuskizuna, eguerdiko 12:00etan, Santo Domingo de Guzman ikastetxean. Sarrerea doan da.

LEIOA

Jaiak: Ariel Rotek joko dau, Barandiaran institutuan, gauerditik aurrean. Musikariaren emonaldia baino lehen beste talde batek joko dau. Horrezaz ganera, egun osoan ekitaldiak izango dira: 8:30etik, III. Leioako Udala Arrantza Txapelketea hasiko da, Lertutxe urtegi, eta 10:00etarako

herriko kirol eskoletako ikuskizuna prestatu dabe, Sakoneta kiroldegian. Beste aldetik, Karting Saria egingo dabe, laugarren urtez, Bulebarrean, 16:00etan hasita. Horren ostean, 18:00etatik aurrera hain zuzen, patinaje ikuskizuna egingo dabe, Kandelazubieta kiroldegian. Iluntzeko 22:30erako Show Tropikalaren karpak zabalduko dabez, Bulebarrean.

ERANDIO

Korpusti jaia: Sailean eta Egan taldeek joko dabe, gauerditik aurrera, Erandio Goikoaren plazan.

MUNGIA

Umeentzako ekitaldiak: Txirri, Mirri eta Txiribitoen pailazoak, hankaluzak, eta *Sorginen madarikazioa* izeneko filma, Mugire Txokoan eta inguruetan.